

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2024ko apirila

## Aurkibidea

- Aurreikuspen berriak
- Gizarte Segurantzako afiliazioa
- Inflazioa
- Familien konfiantza
- Enpresarien konfiantza
- Enpleguaren igurikimenak

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia %1,9 haziko da 2024an

BPGaren hazkundea zertxobait bizkortuko da datorren urtean, %2,1era arte.

### 2. Euskadi Gizarte Segurantzako milioi bat kotizatzailetik gora finkatu da

Martxoko urte arteko aldakuntza tasa %1,8 izan zen.

### 3. Otsailean KPIa lau hamarren murriztu zen

Indize orokorraren urte arteko aldakuntza tasa %3,1 da orain.

### 4. EAEko familiak gero eta baikorragoak dira.

Konfiantzaren indizea azken zortzi hiruhilekoetako mailarik altuenean dago.

### 5. EAEko enpresak baikorragoak dira bigarren hiruhilekoari begira.

Laboral kutxak egiten duen konfiantza indizea 49,8an kokatu da.

### 6. Enpleguari buruzko igurikimenak egonkor mantendu dira azken hilabeteetan.

Euroguneak eta Europar Batasunak lortutako balioak batez besteko historikoa baino altuagoak dira.



# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


## EAEko ekonomia %1,9 haziko da 2024an

### BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2024KO HAZKUNDEA

**%1,9**




Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2024-2025 biurtekorako taula makroekonomikoa berrikusi du. Agertoki berriak ia 2023 osoan bizitako egonkortasunaren irudia luzatzen du eta aurtengo bigarren erdian goranzko joera txiki bat marraztuko du. Zehatz-mehatz adierazita, 2024rako BPGa %1,9 haztea aurreikusiten da, eta 2025erako, berriz, bi hamarren gehiago haztea espero da.

Barne eskaria izango da urte honetarako aurreikusitako BPGaren ia hazkunde osoaren erantzulea,

hazkundeari 2,1 ehuneko puntu ekarriko bultzaketa, eta kanpo saldoa, berriz, bi hamarren kenduko dizkio. 2024. urteko bigarren zatian interes tasak jaisteko aukera emango duen Europa mailako inflazio kontrolatuaren egoerak familien kontsumoa suspertuko du, eta aldagai hori aurtentzen %1,8 igo daiteke. Finantzaketa baldintzen balizko hobekuntza horrek ere eragin positiboa izango du inbertsioan, eta, Next Generation EU funtsetatik jasotako laguntzekin batera, inbertsioa %2,6raino haziko da.


### GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa




### KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




## INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzari dagokionez, kanpo eskariaren ahuleziak, materialen kostuei buruzko ziurgabetasunak eta kreditu erakundeek hipoteka kredituak eskuratzeko edo etxebizitzak berritzeko finantza baldintzak errazteko aukerak oztopatu egingo dituzte industriaren eta eraikuntzaren sektorearen aurtengo lehen hilabeteetan, baina urtearen bigarren erdian bultzada hartzea espero da. Azkenik, zerbitzuen sektoreak egonkortasuneko profila erakutsiko du 2024an eta 2025ean.

Lan merkatuaren indarra da EAEko ekonomiaren erresistentzia azaltzen duen beste gako bat. 2024an, lanaldi osoko lanpostuen kopuruak bizi hazten jarraituko du, eta %1,8 handituko da.


## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA TASA

Ehunekoak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

## Euskadi Gizarte Segurantzako milioi bat kotizatzailetik gora finkatu da


Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,8 handitu zen martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean. Horri esker, Euskadik seigarren hilabetez jarraian milioi bat kotizaziotik gora zenbatu ditu. Hain zuzen ere, martxoan 1.012.128 afiliazio erregistratu ziren Gizarte Segurantzari, hau da, aurreko hilean baino 4.564 gehiago (%0,45), Gizarte Segurantzako Ministerioak argitaratutako datuen arabera.

Afiliazioaren hazkundera handiagoa izan zen emakumeen artean gizonen artean baino. Lehenengo kasuan, martxoko urte arteko tasa %2,0 izan zen, aurreko datua baino hiru hamarren txikiagoa, eta gizonen kasuan, berriz, %1,5, egonkortasun handiagoa erakutsi baitute aurtengo lehen hiru hilabeteetan. Igoera horien ondorioz, 487.500 emakume eta 525.000 gizon inguru daude Gizarte Segurantzari afiliatuta.

### GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

MARTXOKO AFILIAZIOA  
**%1,8**




### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreen eta jarduera adarren araberako bilakaerak adierazten du oraindik ere zerbitzuak direla afiliazio berri gehienak biltzen dituztenak, %2,1eko hazkundea izan baitute 2023ko martxoarekin alderatuta. Baina industriak ere bilakaera positiboa erakutsi du, %1,2ko aldakuntza tasarekin, aurreko datuen antzekoa.

## AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Zerbitzu jardueren barruan, beste hilabete batez, ostalaritzan (%4,1), hezkuntzan (%3,7) eta osasun arloan (%2,2) izandako emaitza onak nabarmentzen dira, baina baita jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (%2,8), garraioan (%2,6) eta informazio eta komunikazioetan (%4,8) lortutakoak ere.

## GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2023ko martxoa	2024ko martxoa	Aldakuntza
<b>AFILIAZIOA GUZTIRA</b>	<b>994.655</b>	<b>1.012.128</b>	<b>17.472</b>
Industria manufakturagileak	172.789	174.775	1.985
Merkataritza	133.836	134.664	828
Osasun arloko jarduera	109.909	112.315	2.405
Hezkuntza	82.408	85.469	3.061
Ostalaritza	67.912	70.710	2.798
Administrazio jarduerak	67.438	68.186	748
Lanbide jarduerak	61.770	63.475	1.705
Eraikuntza	58.531	58.438	-93
Administrazio publikoa	51.865	52.573	709
Garraioa	44.450	45.586	1.136
Etxeko langileak	29.340	29.052	-115
Informazioa eta komunikazioa	26.435	27.695	1.261
Bestelako zerbitzuak	27.257	27.380	122
Jarduera artistikoak	18.904	19.749	845
Finantza jarduerak	16.959	17.179	219
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.882	11.728	-48
Ur horniketa	6.370	6.430	60
Higiezin jarduerak	4.302	4.359	57
Energia horniketak	1.682	1.747	65
Erauzketa industriak	534	529	-5
Lurraldez kanpoko erakundeak	79	88	9


Iturria: Gizarte Segurantza.

# INFLAZIOA

## Otsailean KPIa lau hamarren murriztu zen

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko KPIa %3,1era jaitsi zen otsailean, eta, beraz, azken hilabeteetan erakutsi zuen apaltzeko bidera itzuli da, urtarrileko gorakada puntualaren ondoren. Bilakaera horren arrazoi nagusia elektrizitatearen prezioa jaitsi izana eta elikagaien prezioa pixkanaka egonkortu izana da, bi urteko igoeren ondoren.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2024ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	3,1	3,1
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	3,9	3,3
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	5,7	0,9
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	1,8	0,4
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	4,2	2,0
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	-0,8	-0,2
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	5,3	0,3
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	-5,7	-0,5

### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Elektrizitatearen prezioaren bilakaerak ekarpen nabarmena izan zuen inflazioaren neurritasunean, urte arteko aldakuntza tasa  $-11,5\%$ era jaitsi baitzen. Gas naturalaren kotizazioaren jaitsierak eta karbono dioxidoa isurtzeko eskubideenak, eta sorkuntza berriztagarriaren sendotasunak, merkatze hori ahalbidetu zuten. Era berean, elikagaien prezioak azken hilabete honetan 2022ko otsailetik, hau da, Ukrainako gerra piztu

## TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



aurretik, igoerarik baxuena jaso du orain,  $5,8\%$  baldintza klimatologiko hobeei eta nekazaritza kostuen jaitsierari esker. Elektrizitatearen prezioaren jaitsiera horren ondorioz, etxebizitza taldea izan zen urte arteko aldakuntza tasa negatiboak izan zituen talde bakarra ( $-3,5\%$ ) eta aurreko hilabetearen aldean gehien murriztu zena, bost puntu jaitsiz.

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko otsaila

	Euskadi	Espania	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>3,1</b>	<b>2,8</b>	<b>2,6</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	5,8	5,3	3,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,7	4,7	6,6
Jantziak eta oinetakoak	1,4	1,9	2,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,5	-2,7	-0,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	2,4	1,4	1,1
Osasuna	2,8	2,2	2,9
Garraioa	3,5	2,4	1,6
Komunikazioak	0,4	0,4	-1,6
Aisia eta kultura	3,0	2,8	3,1
Hezkuntza	2,2	2,8	4,0
Jatetxeak eta hotelak	5,1	5,5	5,3
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,5	3,3	4,2

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.




# FAMILIEN KONFIANTZA

## EAEko familiak gero eta baikorragoak dira

### EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2024ko 1. HIRUHILEKOA

- 5



Laboral Kutxak argitaratu duen adierazlearen arabera, urte honen hasieran EAEko familiak konfiantza hobetu zuten aurreko aldietako baliokin alderatuta. Hori horrela izanda, indizea -5ean dago kokatuta orain, hau da, azken zortzi hiruhilekoetan erakutsi duen mailarik baikorrenean. Aurreko aldiarekiko hobekuntza lau puntukoa da. Hala ere, ezkortasun txiki bat hautematen da oraindik.


Inguruko herrialdeetako egoerarekiko alderaketak adierazten du herrialde horietan ere hobetzeko joera txiki bat ikusten dela, nahiz eta oraindik tonu negatiboa nagusitzen den. Inflazio handia, interes tasa altuak eta arazo geopolitikoak dira sentimendu ezkor hori justifikatzen duten arrazoi batzuk. Europar Batasuneko indizea -16koa da eta Espainiakoa, berriz, -17koa.

### FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2022	2023	2022		2023			2024
			IV	I	II	III	IV	I
<b>Euskadi</b>	<b>-11</b>	<b>-9</b>	<b>-23</b>	<b>-9</b>	<b>-7</b>	<b>-13</b>	<b>-9</b>	<b>-5</b>
<b>Europar Batasuna</b>	<b>-23</b>	<b>-19</b>	<b>-26</b>	<b>-21</b>	<b>-18</b>	<b>-17</b>	<b>-18</b>	<b>-16</b>
Frantzia	-18	-17	-20	-21	-17	-15	-15	-13
Alemania	-20	-15	-25	-17	-13	-15	-16	-15
Espainia	-26	-19	-28	-23	-19	-13	-20	-17




## EKONOMIA OROKORRA




Konfiantza indizearen osagai guztiek emaitza hobetu dute aurreko datuarekin alderatuta. Alde batetik, ekonomia orokorraren balorazioak hiru puntu egin du gora, baina ezkortasun irudi garrantzitsua erakusten du oraindik (-18). Bestalde, familiaren ekonomiari buruzko pertzepzioak lau puntu egin du gora eta eremu neutrorra hurbildu da (-5). Halaber, azken hamar hiruhilekoetako emaitzarik onena da.

## FAMILIAREN EKONOMIA




Baikortasuna langabeziari buruzko iritzietara itzuli da, eremu positibora igaro baitira (+2) eta daturik onena utzi baitute zazpi hiruhilekotan. Familien ia %30ek uste du langabezia murriztu egingo dela etorkizun hurbilean, eta %24k kontrakoa uste du. Azkenik, aurrezkiari buruzko igurikimenak puntu neutroan daude, eta familien bi herenek erantzun dute azken hamabi hila-beteetan aurrezteko gai izan zirela.

## LANGABEZIAREN BILAKAERA



## AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral Kutxa.



# ENPRESARIEN KONFIANTZA


## EAEko enpresak baikorragoak dira bigarren hiruhilekoari begira

### ENPRESEN KONFIANTZAREN INDIZEA.

EUSKADI

2024KO 2. HIRUHILEKOA

49,8




Laboral Kutxak argitaratutako inkestaren arabera, EAEko enpresek baikortasun handiagoa erakutsi dute aurtengo bigarren hiruhilekoari begira. Horrela, indizearen balioa lehen hiruhilekoko 45,9tik gaur egungo 49,8ra igo da, hau da, 50 inguruko baliora, atzeraldia eta hedapena bereizten dituen baliora. EAEko ekonomiaren datua eta inguruko ekonomientzat gaur egun antzeko estatistiketan erregistratzen ari direnak ez dira oso desberdinak.

Indizea atalka aztertuta, fakturazioari buruzko erantzunen hobekuntza hautematen da, 50,3ko balioarekin. Hobekuntza espero duten enpresen ehunekoa handiagoa da fakturazioak okerrera egingo duela uste dutenena baino. Beste aldetik, jarduerarekin lotutako erantzunak ere hobekak dira orain, nahiz eta oraindik txarrera egingo dutela uste duten enpresen ehunekoa hobekuntza espero dutenena baino handiagoa izan.


### FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea




### JARDUERA IGURIKIMENAK

Indizea




## ESKARIEN IGURIKIMENAK

Indizea




## PREZIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



## ERRENTAGARRITASUN IGURIKIMENAK

Indizea




Konfiantza indizea osatzen duten gainerako atletatik, errentagarritasunari dagokiona bakarrik dago 50. mailaren azpitik, eta horrek iradokitzen du gutxi direla atal horretan hobekuntza aurreikusten duten enpresak. Aitzitik, nolabaiteko baikortasuna dago enpleguari eta inbertsioari dagokienez, nahiz eta bi kasuetan enpresa gehienek egungo mailari eutsiko diotela erantzun duten.

Enpresa kopuru txiki batek prezioak jaitsiko direla uste du, baina gehienak mantentzearen edo igotzearen aldekoak dira. Azkenik, eskaera berriei buruzko igurikimenak hobetu egin dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ia laurden batek uste baitu handitu egingo direla.


## LANGILE IGURIKIMENAK

Indizea



## INBERTSIO IGURIKIMENAK

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.




# ENPLEGU IGURIKIMENAK

## Enpleguari buruzko igurikimenak egonkor mantendu dira azken hilabeteetan

### ENPLEGU IGURIKIMENAK EUROGUNEA

2024KO MARTXOA  
**102,6**




Martxoan, enpleguari buruzko igurikimenak baikortasun neurritsuaren barruan kokatu ziren berriro, Europako Batzordeak argitaratutako hileko indizearen arabera. Hala, euroaren eremuan 102,6koa izan zen balioa, eta Europar Batasunean, berriz, 102,3koa. Bi kasuetan, ez dago alde handirik aurreko hilabeteetan eskuratutako balioekiko eta egonkortasun handia nabari da bilakaeran, pandemiaren ondorengo errebotea atzean geratu ondoren.


Enpleguari buruzko igurikimeneen bilakaera ona urrun dago jarduera ekonomikoan oraindik ere hautematen den ahuleziarekin, sentimendu ekonomikoaren indizeak erakusten duenez; izan ere, indizea berriz ere 100eko balioaren azpitik dago, bai eurogunean (96,3), bai Europar Batasunean (96,2). Alemania da, herrialde handien artean, emaitzarik txarrena izan duena (89,8), baina ia puntu bat egin du hobera aurreko hilabetearekin alderatuta.

### ENPLEGU IGURIKIMENAK EUROPAR BATASUNA


2024KO MARTXOA  
**102,3**



## ENPLEGU IGURIKIMENAK ALEMANIAN




## ENPLEGU IGURIKIMENAK FRANTZIAN




Enpleguari buruzko iritzietan, alde nabarmenak daude euroguneko lokomotoren eta gainerako herrialde garrantzitsuen artean. Hain zuzen ere, Alemaniak (97,9) eta Frantziak (97,7) ezkortasuna agertu dute arlo horretan, eta ez dira eremu positiboan finkatzen lortu; Espainiak (108,1), Italiak (106,4) eta Herbehereek (104,3), ordea, okupazioaren etorkizuneko bilakaeran konfiantza iradokitzen dute, eta hiru urtez luzatu da irudi hori, egonkortasuneko profil nabarmenarekin.


## ENPLEGU IGURIKIMENAK ITALIAN



## ENPLEGU IGURIKIMENAK HERBEHEREETAN



## ENPLEGU IGURIKIMENAK ESPAINIAN



Iturria: Europako Batzordea.

# ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT.

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>5,4</b>	<b>1,8</b>	<b>3,4</b>	<b>2,4</b>	<b>1,5</b>	<b>1,7</b>	<b>1,7</b>
Barneko azken kontsumoa	6,0	1,5	4,4	2,0	1,2	1,6	1,4
Familien kontsumoa	7,7	1,5	5,1	1,8	0,9	1,6	1,5
Administrazioaren kontsumoa	0,7	1,8	2,2	2,4	2,3	1,3	1,2
Kapital eraketa gordina	8,7	2,1	4,8	1,6	2,5	2,6	1,6
Barne eskaria	6,7	1,7	4,5	1,9	1,5	1,8	1,4
Esportazioak	17,1	1,2	8,6	6,3	-2,5	-0,6	1,6
Inportazioak	18,7	1,0	10,2	5,4	-2,3	-0,3	1,3
Lehen arloa	-8,7	-3,0	-7,3	1,3	-5,9	-4,4	-2,6
Industria eta energia	4,7	0,3	2,4	1,2	-0,7	0,5	0,1
Eraikuntza	6,7	2,1	6,0	0,9	3,6	2,5	1,5
Zerbitzuak	5,9	2,4	3,7	3,0	2,2	2,1	2,3
Balio erantsi gordina	5,5	1,8	3,4	2,5	1,5	1,7	1,6
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,6	1,6	3,1	1,8	1,0	1,5	1,9
Enplegua	2,8	1,7	1,8	1,5	1,6	1,7	2,1

## EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA.

Otsaila

2023										2024	
Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Irail.	Urri.	Azar.	Aben.	Urtar.	Otsa.
98,2	93,5	87,7	84,6	85,6	85,7	88,3	88,4	86,0	83,1	83,6	82,0
X<50 Atzeraldia				50<X<100 Hazkunde leuna				X>100 Hazkunde bizia			

EAEko ekonomiaren termometroak 82,0ko balioa izan zuen otsailean, eta, hala, beste hilabete batez egon zen hazkunde leuneko eremuan, nahiz eta aurreko hilabetearen azpitik kokatu. Nabarmenezkoa da kontsumoan eginiko gastuaren hazkunde sendoa, inbertsioaren eta kanpo sektorearen bilakaera neurritsugoak orekatzen baitu. Sektore mailan, eraikuntza eta zerbitzuak dira jarduera ekonomikoaren buru, eta industriak, berriz, dinamismo txikiagoa erakusten du. Enpleguak, sektoreen artean modu desberdinean bada ere, sendo hazten jarraitzen du, EAEko ekonomiaren joera positiboaren isla.

# ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

## MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2024				2024	2025
	I	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>1,4</b>	<b>1,7</b>	<b>2,0</b>	<b>2,2</b>	<b>1,9</b>	<b>2,1</b>
Barneko azken kontsumoa	1,4	1,6	2,1	2,1	<b>1,8</b>	<b>1,9</b>
Familiaren kontsumoa	1,3	1,6	2,0	2,0	<b>1,7</b>	<b>1,8</b>
Administrazioaren kontsumoa	1,6	1,9	2,6	2,7	<b>2,2</b>	<b>2,3</b>
Kapital eraketa gordina	2,0	2,5	2,7	3,1	<b>2,6</b>	<b>2,5</b>
Barne eskariaren ekarpena	1,6	1,9	2,3	2,4	<b>2,1</b>	<b>2,1</b>
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,2	-0,2	-0,2	-0,2	<b>-0,2</b>	<b>0,0</b>
Lehen arloa	2,2	3,4	0,6	4,6	<b>2,6</b>	<b>4,7</b>
Industria	0,0	0,7	1,2	1,6	<b>0,9</b>	<b>1,8</b>
Eraikuntza	1,2	0,8	1,6	2,0	<b>1,4</b>	<b>1,9</b>
Zerbitzuak	2,0	2,1	2,3	2,4	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>
Balio erantsi gordina	1,5	1,7	2,0	2,2	<b>1,9</b>	<b>2,1</b>
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	0,9	1,5	2,1	2,2	<b>1,7</b>	<b>2,2</b>
Lanaldi osoko lanpostuak	2,1	2,0	1,7	1,6	<b>1,8</b>	<b>1,6</b>
Landunak (BJA)	1,1	1,0	1,0	1,0	<b>1,0</b>	<b>1,1</b>

## EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
BBVA	2,3	2,3	Confebask	1,6	—
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	<b>1,9</b>	<b>2,1</b>	Laboral kutxa	1,4	—
Ceprede	1,6	2,0			
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,6	2,1			

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

## TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>5,8</b>	<b>2,5</b>	<b>3,8</b>	<b>4,1</b>	<b>2,0</b>	<b>1,9</b>	<b>2,0</b>
Kontsumo pribatua	4,8	1,8	2,2	2,7	1,8	0,4	2,3
Kontsumo publikoa	-0,2	3,8	1,6	1,8	4,5	4,7	4,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,4	0,8	-0,4	-0,2	1,3	0,0	2,1
- Aktibo finko materialak	2,1	1,0	-0,1	0,4	1,7	0,1	1,9
- Eraikuntzan	2,6	2,3	1,2	3,1	3,5	1,1	1,6
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	-1,6	-2,0	-4,2	-1,8	-1,9	1,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,8	-0,3	-1,9	-2,8	-0,7	-0,4	3,0
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	1,7	0,7	1,4	1,9	1,4	2,1
Esportazioak	15,2	2,3	8,7	9,7	0,0	-1,0	1,0
Inportazioak	7,0	0,3	0,1	2,3	-0,3	-2,4	1,7

## BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
Oxford Economics	2,1	1,7	Fitch Ratings	1,6	2,0
CEPREDE	2,1	2,4	Repsol	1,5	2,3
BBVA	2,1	2,0	UniCredit	1,5	1,5
Moody's Analytics	1,9	2,0	UBS	1,5	1,9
Goldman Sachs	1,9	1,7	Citigroup	1,4	1,3
La Caixa	1,9	2,2	Econ Intelligence Unit	1,4	1,8
FUNCAS	1,8	2,0	Barclays	1,4	1,6
S&P Global Ratings	1,8	2,0	<b>Batez bestekoa</b>	<b>1,6</b>	<b>1,8</b>
CEOE	1,8	2,0	Gobernua (2023-10)	2,0	—
Rabobank	1,8	1,9	Espainiako Bankua (2024-03)	1,9	1,9
AFI	1,8	1,8	Europar Batzordea (2024-02)	1,7	2,0
Grupo Santander	1,8	2,0	NDF (2024-01)	1,5	2,1
Inst. Estud. Económicos	1,7	1,9	ELGA (2024-02)	1,5	2,0

Iturria: Consensus Forecast.



# ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
AEB	1,9	2,5	0,7	1,7	2,4	2,9	3,1
Txina	3,0	5,2	2,9	4,5	6,3	4,9	5,2
Japonia	1,0	1,9	0,7	2,4	2,3	1,6	1,3
Kanada	3,8	1,1	2,2	1,8	1,0	0,5	0,9
Europar Batasuna	3,4	0,4	1,7	1,2	0,6	0,1	0,2
Eurogunea	3,4	0,4	1,9	1,3	0,6	0,1	0,1
Alemania	1,8	-0,3	0,8	-0,1	0,1	-0,3	-0,2
Frantzia	2,5	0,7	0,7	0,9	1,2	0,6	0,7
Erresuma Batua	4,3	0,1	0,6	0,3	0,2	0,2	-0,2
Italia	4,0	0,9	2,0	2,3	0,6	0,5	0,6
Herbehereak	4,3	0,1	3,0	2,0	-0,1	-0,5	-0,7

Iturria: Eurostat eta ELGA.

## CONSENSUS FORECAST. 2024KO MARTXOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
AEB	2,2	1,6	2,8	2,2	4,0	4,2
Japonia	0,6	1,1	2,3	1,6	2,5	2,4
Kanada	0,7	1,8	2,5	2,1	6,2	6,2
Europar Batasuna	0,8	1,6	2,7	2,2	—	—
Eurogunea	0,5	1,3	2,3	2,0	6,6	6,6
Alemania	0,1	1,1	2,5	2,1	5,9	5,7
Frantzia	0,7	1,3	2,5	1,9	7,5	7,5
Erresuma Batua	0,2	1,1	2,5	2,2	4,4	4,5
Italia	0,6	1,0	1,8	1,9	7,6	7,5
Espainia	1,6	1,8	3,0	2,2	—	—
Herbehereak	0,7	1,4	2,5	2,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.